



Euskadiko Lehendakaria
El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abendua

Munduko euskal herritarrak,

2023an ere, urtean bizi izandakoaren eta galdutakoaren balantzea partekatu nahi dut zuekin. Nire lehenengo oroitzapena, zintzotasunez eta hunkituta, aurten utzi gaituzten pertsona guztientzat.

Donostian **Kanpoko Euskal Gizataldeen VIII. Mundu Batzarra** antolatuz amaitu dugu urtea, ikur moduan itsasargi bat hartuta, eta "Eraldaroa" lelopean. Biltzar horretan, transformazioz edo "eraldaketa" beteta datozen aukera berriak partekatu ditugu, garai edo "aro" berri honetan. Hau da, "eraldaketa" "aro" honetan. Hortik "Eraldaroa" lema.

Biltzar horrekin bat etorri, 2023ko **Gaztemundu Programa** ere aurrera atera da. Aurten, guztira, 15 gaztek hartu dute parte; eta, ohi bezala, Gaztemundu Programako gazteak Euskal Herrira etorri dira, gure herria hobeto ezagutzeko, prestakuntza jasotzeko eta Mundu Batzarrean parte hartzeko.

Denok dakigunez, Euskadi txirrindulari handi askoren sorlekua da, eta gure herrian txirrindularitza zaletasun ikaragarria dago. Uda partean, Frantziako Tourreko "**Grand Départ**" delakoaren agertokia izan ginen. Arrakasta erabatekoa izan zen antolaketan, ikuslegoan eta zabalkundean. Izan ere, telebistaz eskainitako ikuskizun paregabe honi esker, Euskadiko ikurrina, giroa eta paisaiak 190 herrialde baino gehiagotara iritsi ziren.

Udaren amaieran, irailaren 8an, **Euskal Diasporaren eguna** ospatu genuen, hain justu ere, Gernikan, Euskal Herria Museoko lorategian. Aurten, Australiarako emigrazioa izan zen gai nagusia. Gure Diaspora omentzea da ospakizun hauen helburua, eta jarraian antolatzen den seigarren edizioa izan zen.

Era berean, urtean zehar, munduko beste Euskal Komunitate batzuen hainbat ekitaldi ere aurrera atera dira, besteak beste, Estatu Batuetako Ospakizunak, Hego Amerikako Hirietako Jaiak, Argentinako Aste Nazionala, Frantziako Komunitatearen Topaketa eta Europako, Ozeaniako eta Asiako **Euskal Etxetako Jaiak** eta Kultur jarduerak.

Urrian, Asiarako bidaiatzeko aukera izan nuen, hain justu ere, **Euskadi-Japonia 2023** programaren barruan. Horrela, Tokioko Euskal Astean parte hartu nuen, eta Tokioko Euskal Etxean, hango euskal komunitate aktiboa lehen eskutik ezagutu ahal izan nuen, bai eta gure Herriak eta Kulturak han pizten duten jakin-mina ere.

Aldiro-aldiri, joan-etorri hauetan eta zuekiko harremanetan, teknologiek gero eta garrantzi handiagoa dutela egiaztatzen dut. Mundu global honetan elkarren menpe gaudenez, **herrialde guztiek josi nahi dituzte sareak**, euren biztanleentzat gizarte-, kultura- eta ekonomia-etekinak lortzeko.

Gure herrirako, Euskadirako, balioa sortzen jarraituko dugulakoan, data berezi hauetan zuengana jotzen dut, nire besarkadarik sendoena eta 2024 berrirako nire desiorik onenak helarazteko.

Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela eta Urte berri on guztientzat!

Iñigo Urkullu Renteria